

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

"Perpetua Saragueta: eskuidatziak eta hiztegia" idazle nafarraren lanari buruzko liburua aurkeztu dute

Mendaur bildumaren bederatzigarren liburukia da eta Euskarabideak eta Euskaltzaindiak sustatuko dute

Viernes, 17 de junio de 2011

Euskarabideak eta Euskaltzaindiak *Perpetua Saragueta: eskuidatziak eta hiztegia* liburua aurkeztu dute gaur goizean Iruñean. Euskaraz dago idatzita eta *Perpetua Saragueta* (Mezkiritz 1905-Iruña 1986) idazle nafarraren obrari buruzkoa da. 700 ale plazaratu dira eta salneurria 15 euro izango da.

Liburua Euskarabidearen egoitzan aurkeztu dute Xabier Azanza Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak eta Andres Iñigo Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkari eta liburuaren egileak. Ekitaldian, halaber, Saraguetaren alaba Maite Urtasun izan da.

Liburuaren helburua *Perpetua Saraguetaren* obra osorik argitaratzea da eta argitaragabeko testuak ere biltzen ditu. Zehazki, bi kapitululuk osatzen dute. Batean, idazlearen oroitzapenak, bizitzan zehar ezagutu zituen emakumeen azalpen biografikoak eta bertso batzuk jaso dira. Bestean, idazkietan erabili zuen lexikoaren hiztegia agertzen da.

Horiez gain, bi gehigarri ditu. Lehenengoak Baionako "Eskualduna" eta Donostiako "Argia" aldizkarietara bidali zituen Espainiako gerra zibilaren aurreko garaiko Mezkiritz (Erroibar) eta Arizkun (Baztan) herriei buruzko sei kronika jasotzen ditu. Bigarrenean, José Mari Satrustegik 1977 eta 1979 urteetan Saraguetari egin zizkion hiru grabazio daude MP3 formatuan. Grabazio horiek Euskarabideko mediatekaren bidez ere entzun daitezke.

Liburua Mendaur bildumaren bederatzigarren liburukia da. Bilduma Euskarabideak eta Euskaltzaindiak sustatu dute eta horren xedea Foru Erkidegoan egin diren euskararekin loturiko lanak plazaratzea da.

Bilduma horren barruan argitaratu diren beste liburu batzuk: *Jose Maria Satrustegi: ereile eta lekuko* Andres Iñigorena, *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia* Pello Salaburu eta Maite Lakarrena, *Luzaidoko Euskararen Hiztegia* Peio Kamino eta Patxi Salaberrirena, *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia* Orreaga Ibarrena, *Erronkari eta Ansoko toponimiaz* Juan Karlos Lopez-Mugartzarena, *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa* Edu Zelaietarena eta *Sakanako euskara, Burundako hizkera* Koldo Zuazorena.

Saraguetaren bizitza eta lanak

Perpetua Saragueta Saragueta 1905eko abuztuaren 3an jaio zen

Mezkiritzen (Erroibar) eta 1986ko martxoaren 26an hil zen Iruñean.

Mezkiritzeko eskolara joan zen sei urte izan zituenetik hamar urtera arte, eta, han, Manuel Lusarreta herriko parroko eta irakasleak irakatsi zion. Iruñean zerbitzari aritu zen lau urtez lanean eta hogeita lau urterekin Arizkungo Bozate auzora joan zen bizitzera. Baztango herrian Trinidad Urtasun senarra ezagutu zuen. Iruitakoa (Baztan) zen senarra, lanbidez okina eta zaletasunez bertsolaria.

1931n Iruritan ezkondu zen, eta han senarraren familiako okindegian egin zuen lan. Haren egitekoetako bat inguruko herrietatik ogia banatzea izan zen. Horretarako, gidabaimena atera behar izan zuen (antza denez, Nafarroan gidabaimena atera zuen bigarren emakumea izan zen). 1944an Urtasun-Saragueta familia Iruñeara joan zen bizitzera. Trinidad 1978an hil zen eta Perpetua 1986an.

Eskolan egin zuen denboran jadanik irakurtzeko eta idazteko zaletasun handia agertu zuen. Horrek ama-hizkuntzan, euskaraz, idaztera bultzatu zuen. Garai hartan euskaraz idatzi zuen emakume urrietako bat izan zen.

Saraguetaren idazkietan bi garai bereiz daitezke. Hasierako testuak Espainiako gerra zibilaren aurrekoak izan ziren; orduan kolaborazioak egin zituen "El Pensamiento Navarro" eta "La Voz de Navarra" egunkarietan eta hainbat kronika argitaratu zituen Baionako "Eskualduna" eta Donostiako "Argia" aldizkietan. Oro har, artikuluak Txorrondo ezizenez sinatzen zituen, izen horretako auzoan hazi baitzen.

Gerraren ondoren Perpetuak idazteari utzi zion eta iragan mendeko 70eko hamarkadan hasi zen idazten berriz ere. Idazkietan gai ugari landu zituen, eta Jose Mari Satrustegiren laguntzarekin idazki horietako asko plazaratu zituen 1979-1986 garaian. Hala ere, idazki gehienak ez zituzten argitara eman.